

FAUNA PUBLIKOA

**"Erritmo kontua da:
ez dugu independentzia
nahi une honetan"**

**Kirmen Uribe, idazlea
(The New York Times)**

Hitz egin zure izenean



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria


Nik dakidala, modu bakarra dago independentzia nahi dugun ala ez zuzen jakiteko: herritarrei erreferendum bidez galdetzea. Baina ez garenez Doraemonen munduan bizi -ETBko errepikapenek batzuetan kontrakoa sinetsarazi nahi badigute ere-, aukera hori ezin da poltsiko magikotik atera eta Espainiako lege bihurtu. Inola ere ez, hori ez da posible testu hau irakurtzen ari zaren momentuan -oharra: berdin du noiz ari zaren testu hau irakurtzen-.

Hortaz, euskaldunok independentziaz inkestetan adierazten ditugun nahiak dira, gehienez, oinarrizko eskubide bat ukatuta edukitzeak eragiten duen animo-egoeraren isla. Gero animo-egoera horrekin politika egiten da eta atzo erabakitzeko eskubidearen bidean sakondu nahi zuen alderdia gaur buru-belarri sartuta dago errestaurazio estatutarioan, horretarako gehiengoa paktatuz PSOErekin -zeinak babestu duen katalanek hautatutako Gobernuari 155 kalibreko ostikoa ematea-.

Mezua argi dago: sediziosoen parrandak ezin du kostalde honetara iritsi. Mezua oso argi dago: berdin du herritarrek zer dioten. Mezu horren alde mobilizatuta dago EAEko kultura ofizial guztia azken asteetan, "gu oraindik ez, gu *despacito*"; eta politikariek esaten dutenarekin dudarik baldin bazegoen, hemen daukazu Euskal Idazle KanonikoTM gauza bera errepikatzen.

Problema nagusia ez da edukia, nolana. Problema da Kirmen Uribek bere idazle lanetik dimititzea eta nazioarteko medio batean bere iritziak herritar guztienak balira bezala agertu nahi izatea. Literaturak ez dauka zerikusirik *low cost* soziologia honekin, errealitatearen poroetan bizi da, pertsonen eta gizartearen kontraesanetan; aurre-fabrikatutako adierazpenetatik urrun dagoen lurralde horretan. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



BITARTEAN EUSKAL HERRIAN...



SALBU, ESPAINIAK 8 ETA 21 URTE BITARTEKO KARTZELA ZIGORRA ESKATZEN DUELA 48 LAGUNENTZAT PRESOEN ALDE LAN EGITEAGATIK. BAINA BESTELA, DENA ONDO...

ADUR